

## CULTURA

# Hiru artista auto baten barruan bere bizitza errepasatuz

'Road movie' tankerakoa da Patxi Zubizarretaren nobela berria, eta liburuak diskoa dakar berekin, batik bat Joserra Senperenaren doinuez osatua

FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA.

3 octubre 2014  
00:31

Patxi Zubizarretak '50' izenburuko eleberria plazaratu du, berekin disko bat dakarrena, non Joserra Senperenaren doinu ba- tzuk entzun daitezkeen, pianoarekin jotakoak. Halaber, marrazkiak ditu liburuak, Mintxo Cemillán gasteiztarrak eginak.

Ordizian jaio eta aspalditik Gasteizen bizi den idazle honek 50 urte bete ditu aurten, urtarrilean. «Eta orain dela gutxi, Joan Mari Irigoienekin hizketan ari nintzela, konturatu nintzen 25 urte daramatzadala euskal literaturaren arloan lanean. Orain desorientazio eta desasosegu giroa bizi dugu eta horrek deskolokatu egiten nau. Michel Gaztanbidek, berriz, 'lokatzezko garaia' aipatzen ditu», esan zuen idazleak atzoko aurkezpenean. Nobela honetan, «25 urte hauetako sintesia dago, irakurketak, oroitzapenak eta frustrazioak».

Halako 'road movie' bat da kontakizuna. Protagonistak auto batean doaz Euskal Herritik Panticosara, han 'Baso bat opari' errezitaldia eskaini behar dute-eta. Joseba pianojolea da eta orain tanatorioan jotzen du gehienbat; Rafael eskultorea da eta egurrezko aterkiak egiten ditu, sendo askoak; Nikolas idazlea da eta autolaguntzazko liburuak idazten ditu. Beste protagonista bat, Gilen, hilda dago, baina haren presentziak etengabe planeatzen dulagunon solasaldietan.

«Aspaldian seminarista izan zen Gilen. Gero, ikusi zuenean erlijioak ez ziola baio, bizitza edan beharrean hasi zen. Bere burua hil zuen eta lagunek ez dakite hari nola azken agurra eman», esan zuen Zubizarretak. Erlijioa da tarteka lagun horien solasaldian azaltzen den beste gai bat. Eta politikaz ere sarri dihartute. Halako batean, Rafaelek hau esaten die beste bi lagunei: «Lehen erlijioa aipatu duzu, baina nork bihurtu du hemen Herria erlijio berria? Konturatu al zarete beti pluralean hitz egiten duzuela? Gu, guk geuk, guri... Edo hirugarren pertsonan bestela: Herriak erabaki du; Herriak behar du... Eta benetan esango dizuet, gogaituta nago prentsaurrekoen Azken Afariko estetika horrekin: mahai bat, Kristo mikroarekin, apostoluak ikurrinarekin eta antz-antzeko pankartarekin, eta atzean abesbatza, motots, bizar eta aurpegi ezin serioagoekin... Estetika hori, koadro hori bai errepikakorra».

Josebak honela erantzuten du: «Nork esan zuen aurrekoan esaldi batek primeran laburbiltzen dituela gure azken 30 urteak: 'Hi gaizki, ni okerrago, izurra gaitezen biok'».



Aurrean, Mintxo Cemillán eta Patxi Zubizarreta; atzean, Antton Valverde eta Joserra Senperena. / ARIZMENDI

Zubizarretaren ustez, «apatiko, patetiko, peripatetiko eta oso erridikuluak» dira nobelako protagonistak. «Farandulako mundua kontatu nahi nuen, ikuskizuna bukatu ostean gertatzen dena», jarraitu zuen. Istoria 2009an kokatua dago. «Garai zaila izan zen: Egunkaria, Arnaldo Otegi...».

«Artea oso gauza arruntzat daukat. Oso sentibera suposatzen den mundua da, baina putakeriak daude», gaineratu zuen egileak. Liburua «oihartzunez bete» omen dago, «eta bertan nire arima topatuko bazenute, ni pozik».

Zubizarretak uste du liburu-diskoa «opari bat» dela, «baina batez ere oparia niretzat izan da». Eskerrak eman zizkion Txalapartako editoreari, Mikel Sotori. «Editore ausarta izan da. Eta konplizea. Labirintorik ateratzen lagundu dit. Izan ere, bukaera konplikatu egin zitzaidan, gehiegi zabaldu nuelako abanikoa».

## Musika eta marrazkiak

Diskoan, berriz, Joserra Senperenaren doinuak dira nagusi. Pianojolearen etxean egin zuten grabaketa, eta handixe pasatu ziren kolabora-tzaileak: Antton Valverde pianojolea, Madddi Oihenart kantaria, Oihane Igerabide harpajolea, Rafa Berrio kantaria.

Hamaila aleetatik, erdiak Senperenaren pieza instrumentalak dira. Beste batzuetan Patxi Zubizarreta ageri da bere testu batzuk errezitaz; beste batean, kantatzera ere animatzen da idazlea...

Jendaurreko errezitaldi batzuk ere egin ditu Zubizarretak Senperenarekin, lehenbizikoa Avilan, bigarrena Salamancan, eta laster Gasteizko Sailburuan egingo dute.

Liburuak marrazki asko dakar-tza, denak Mintxo Cemillánek eginak. Madrilen jaio eta Gasteizen bizi den marrazkilari honek atzokoan esan zuenez, ez du ilustrazio literalik egin nahi izan. «Patxik esan zidan badagoela isiltasun bat, batzen gaituena gaur egungo zarataren gainetik, eta hori marrazten saiatu naiz. Ez da lan erraza izan eta harro nago».

50

### DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto [contactanos@diariovasco.com](mailto:contactanos@diariovasco.com)

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

### EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.